


LAUKIZ eta MARURI-JATABEko EUSKARA ZERBITZUA

eUTSI!

2009ko UZTAILA - 24 zk.



**“San Juan bagillean
denpora ederrean
artoak eta gariek gorde
ta sapoak eta sugeak erre”**



SAN JUAN LAUKIZEN ETA MARURI-JATABEN

Euskal ohitura zaharrari jarraituz, San Juan sua “piztu” zen bai Laukizen, bai Marurin egunik luzeena eta gaurik laburrena ospatzeko. Txokolatea eta ondo pasatzeko gogoia ez zen falta behintzat!





NORA DOAZ GURE HONDAKINAK?

Pasa den ekainaren 24an, Uribe Butroeko Mankomunitateko zenbait alkate, zinegotzi eta teknikari, gure hondakinak nola berreskuratu, birziklatu edota berrerabiltzen diren ikustera joan ziren. Horretarako, lehenengo orduan, autobusa hartu eta Ortuellan dagoen Bizkaiko Tamainu handiko hondakinen

berziklategira abiatu ginen. Bertan Begoña Egiraun gure zain zegoen, Berziklategi horretan egiten dena azaltzeko. Ondoren ikusi ahal izan genuen tamainu handiko hondakinak nola eta nondik sartzen ziren, zer egiten den haiekin (egoera onean daudenak, konpondu, txukundu eta berriro saldu, besteak berriz, dituen osagaiak banandu bakoitza dagokion tratamendua jasotzeko). Ondoren Zamudion dagoen Rezikleta lantegia ikustera joan ginen. Bertan Ana Baskaran "gida" moduan ibili zen arropak duen ibilbidea azalduz. Esan zigun bezala, uda garaia izaten da arropa gehien jasotzen den aldia, hori dela eta, eta lekua oso handia izan arren, arropa gainezka zegoen. Anak azaldu zigun egoera onean dagoen arropa berriro salmentan jartzen dela bai Ekorropa dendetan bai Txilen eta Errumanian duten dendetan.

Zorrotzan genuen eguneko azken zita: Bizkaiko Zabor Birziklategia, hau da edukiontzi horira botatzen duguna. Oraingoan Unai Urrutia ibili zen azalpenak ematen zernolako banaketa egiten den eta barruko prozesu guztia azaltzen. Harrigarria benetan egiten den banaketa: poltsak alde batetik, bi motatako plastikoa, brikak, eta latak ere, beste bi zatitan...

Oso bisita interesgarriak izan ziren zeren eta artez-arte ikusi ahal izan genuen zer egiten den edukiontzietara botatzen dugunarekin.

Eta ez ahaztu EZ BOTA BIDEOZINTARIK EDUKIONTZI HORIRA, makinetan engantxaturik geratzen direla eta askotan matxurak eragiten dituztelako. Eraman Garbigunera mesedez!!



ARGAZKI LEHIAKETA 2009

Bigarren urtez antolatu du Laukizko Udalak Argazki Lehiaketa. Oraingoan ere, "Laukizko bazterrak" ezagutu nahi genituen edo jendeak nola ikusten duen Laukiz. Nahiz eta aurten argazki gutxiago aurkeztu (guztira 34) kalitatea orokorrean iazkoa baino altuagoa izan da. Epaimahaia pasa den ekainaren 22an bildu ondoren, honako erabakia hartu zuen:

- 1go saria: "Indarra" AITOR GALBARRIARTU
- Akzesita Laukiztarri: "Artolotzako baserritarra" IÑAKI ABORRUZA.

Gogoratuko duzuenez, Aitorrek ere iazko lehiaketa irabazi zuen eta poz-pezik agertu zen saria jasotzera. Iñaki ezin izan zen etorri. Hala ere saria gordeko diogu jakina!

Datorren urterako oinarriak apur bat aldatuko direlakoan gaude, ea horrela Laukizko argazki artxibo polita osatzen dugun apurka-apurka



ESKOLAKO JAIA

Pasa den ekainaren 20an Laukizko Eskolako Jaia ospatu genuen. Goizean esku-pilota partiduak egon ziren eta jarraian bazkaria. Arratsaldean BITSA FESTA eta hainbat joku antolatu ziren. Giroa ezin hobea eta benetan primeran pasatu genuen!!



AGUSSSSTO! ANTZEZLANA MARURI-JATABEN

Aurreko Eutsiko alean iragarri genuen bezala, apirilaren 24an Gurutze Beitia eta Gorka Aginagaldek bisita egin ziguten Agusssto! antzezlana aukezteko. Jendea apurka apurka hurbildu zen Kultur Etxeko goiko solairura ikuskizunaz gozatzeko prest. Ea ordu betez egon ginen barrez leherka "Patxi eta Maruri-Jatabeko alkate andre berriarekin". Giro ederra eta denok poz-pozik argazkietan ikusten den bezala.



KORRIKA

Aurreko alean adierazi genuen bezala, KORRIKA Maruri-Jatabetik pasatu zen apirilaren 3an. Aspaldiko partez ez zen egunez pasatzen, hori dela eta aurreko urteetan baino jende gehiago hurbildu zen honaino euskararen aldeko kilometro bat (edo gehiago) egiteko. Maruri-Jatabeko Udalak erosi zuen kilometroan, Alkateak, zinegotziak, udaletxeko langileak eta hainbat herritarrek hartu zuten parte. Ondoren, Laukizko Udalarri eman zitzaion lekukoa Leku-Ona parean. Kilometro honetan, Laukizko zinegotziaz gain (lekukoa hartu zuena), Eskolako ikasleek, irakasleek eta gurasoek hartu zuten parte gogoz, haiek egindako petoekin eta guzti. Amaitzeko Mailuki tabernak eskeinitako luntx gozoa dastatu ahal izan genuen. Bi urte barru berriro elkartuko gara ezta??



LIBURUTEGIA

Otsailetik ekainera bitartean Laukiz eta Maruri-Jatabeko liburutegietan hainbat ekintza antolatu dira. Batzuen berri eman genizuen aurreko alean, baina apirilean, maiatzea eta ekainean ere egon dira ekintza ezberdinak: ipuin kontalaria, pertsonaia mozorroa, liburu eguna ere ospatu dugu Laukizen liburuak trukatzeko plazan...Oso ondo pasatu dugu benetan. Ekintza hauen helburua, liburutegiko barruko liburuaren altxorra ezagutaraztea izan da.

Orain uda dator eta denok joango gara oporretan, piszinara, hondartzetara,... leku zoragarriak liburu on bat edukitzeko esku artean.

Irailean berriz itzuliko gara programa honekin baina ekintza berrieekin, horrela gure liburutegiak ipuinen magiaz beteko dira!!



INGURUMEN UDALEKUAK

Udarekin batera, udalekuak datoz berriro gure herrietara. Aurten ere, ingurumen udalekuak izango dira, zeren eta natura eta ingurumen heziketa, ea ekintza gehienetan nabarituko da. Beraz, birziklapena, kontsumo arduratsua, mugikortasun iraunkorra, ingurumenari zor diogun errespetua eta beste hainbat kontu sentitu eta ikasiko dute, baina jai giroan eta nola ez, primeran pasatuz!

Erne egon uztailean zehar, zeren eta egun batean denak "gurpildun tresna" baten gainean ikusiko duzue, beste batean Trukea egiten topatuko duzue aintzinean bezala, bestean belarrak eta landareen bila, jolasean, txango txikiak egiten eta amaitzeko, herriarentzako opari berezia: udalekuan zehar zaindu duten landarea utziko dute herri bakoitzaren leku batean (haiek erabakitakoa), beste batek zaintzen jarraitzeko, bakoitzak uztailean zehar egin duen bezala.

Laukiz eta Maruri-Jatabeko udalekuak hasiko dira uztailaren 1ean eta 30ean bukatuko dira. Laukizen goizeko 10.30etatik 13.30etara, eguaztenetan izan ezik, Jatabeko igerilekuetara joango direlako. Maruri-Jataben berriz, goizeko 10.00etatik 13.30etara bitartean ibiliko dira, eta igerilekuetara barikuetan joango dira.



AGENDA

**San Lorentzo Jaiak Maruri-Jataben;
Abuztuaren 10ean**

•

**San Miguel Jaiak Laukizen
irailaren 29an**

•

**Maruri-Jatabeko mendi martxa
irailaren 13an**

ABESTU GEUGAZ!!

ZEU, ZEU, ZEU (GATIBU)

Ze, zeu, zeu!
Santutxo plantak egiten dozuz.
Errez engainetan dozu,
zeure aingerutxu aurpegi horrek
ez zaittu xalatzten.

Baina... nik badakit zu nor zaren,
ondo baino hobeto ezagutzen zaittut,
zuk niri palu bet baino gehiago
sartunde dekoztazu.

Ze! Printzesa kapritxosie.
Ze! Hain hotza eta hain dultzie.
Ze! Lotzen nauen aramusarie, nire pozoie.

Kartak markatu egiten dozuz
eta mahai azpitik jokatzten dozu,
esku baten larrosak dekozuz,
labanak bestien.

Lorak nahi dozuz baratzien;
ay! Printzesa kapritxosie,
baina erein dozuzen hazi guztixek
sasixek dire.

Ze! Printzesa kapritxosie.
Ze! Hain hotza eta hain dultzie.
Ze! Lotzen nauen aramusarie, nire pozoie.

Barre gorri erantzun honeri,
zer egingo deutzozu hurrengoari?
Suten dagoen edozein untzeri
heldzen zara bizioagaitik.


Printzesa kapritxosie.
Hain hotza eta hain dultzie.
Lotzen nauen aramusarie, zara zu!

ALE HONETAN PARTE HARTU DUTE

MARIA FERNANDEZ
SAIOA SANZ



MARURI-JATABEKO
UDALA



LAUKIZKO
UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



euskara biziaren erabilera plan nagusia
plan general de promoción del uso del euskera



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTZA